## 2.- Birpasatu aginduak

Aginduak ematen badakizue. Estruktura hori birpasatzeko, begiratu orain Osakidetzak koronabirusa ez kutsatzeko eman dituen ahokuei. Fijaos en los consejos que ha dado Osakidetza para no contagiarnos de coronavirus:



adituek uste dute saguzarretatik egin zuela salto gizakietara, baina oraindik ziurtatu gabe dago teoria hori.

**5 ZER EGIN EZ KUTSATZEKO?**

Garbitasuna beti da garrantzitsua, baina koronabirusetik salbu egoteko are garrantzitsuagoa da, birusa oso kutsakorra baita. Nola hedatzen da, ordea? Pertsonatik pertsonara igarotzen da, arnas partikuletatik. Gaixo dagoenak, eztula edo doministiku egiten duenean, beste bati erants diezaioke. Baina kontuz ibili behar da, gaixo batek ukitu duen ateko eskutokia edo bestelako elementuak ukituta ere kutsatu ahal delako. Zer egin, beraz, ez kutsatzeko?



Marrazkiek aginduak dituzte: eskuak **garbitu**/ paperezko mukizapiak **erabili**…

### .Debekuak!!!!

Orain ikasiko dugu debekatzen( prohibir). hau ere oso erraza da. **EZ** partikula aditza baino lehen jarri, eta kitto. Marrazkietan dauden aginduak ezezkoan jarri.

Adibidea: EZ garbitu eskuak…

Eta, bukatzeko, zer debeku dago koronabirusa dela eta? Egin zerrenda. ¿Qué prohibiciones tenemos debido al coronavirus? Haced una lista de 3 prohibiciones.